

## EZ DEZAGUN AHAZTU HERRI SAHARARRA

Datozen egunetan hauteskunde orokorren emaitzen azterketak eta gobernu berriaren osaketaren ingurukoek beteko dituzte egunkarien orrialdeak eta bestelako komunikabideen programazioak.

Ez du hartu, ezta hartuko ere, hainbesteko presentziarik abenduaren 16tik 20ra, Dajlan dagoen errefuxiatu sahararren kanpamenduan (Aljeria), Fronte Polisarioak egin duen 14. kongresuak.

Aurreko urrian, kanpamendu guztiek euri-jasa izugarriak izan zituzten, 5 egunetan goiz eta gauetz euria ateri gabe, eta hondamendia ikaragarria izan zen, batez ere Dajlan. Adobez egindako ia etxe guztiak azukre moduan disolbatu ziren, eta sendagoak zirenek, eskolek edo ospitaleek, kalte handiak izan zituzten.

Laguntza humanitaria eskasa izan bada ere, gauza izan dira aurreikusitakoa betetzeko eta kanpamenduak 2500 ordezkari, 300 gonbidatu eta nazioarteko prentsa -batez ere, magrebtarra- hartzeko beharrezko azpiegituraz hornitzeko. Europa komunikabideek ez diote jaramonik egin kongresuari. Armetara itzultzeko mehatxuak, gatazka bide diplomatikoaz konpontzeko esperantza agorturik, ez du mendebaldeko komunikabideen arreta piztu.

Espainiar Estatuko ordezkari-tza instituzionalik ere ez da izan. Euskal Herritik Gasteizko Legebiltzarreko taldearteko Josune Gorospe -EAJ- eta Diana Urrea -EH Bildu-, eta Amaiurreko Urko Aiertza senataria bertan izan ziren. Afrikako herrialde anitzeko ordezkariak izan dira eta baita Europako iparraldekoak ere. Elkartasun taldeetako kide ugari ere -Estatukoak zein nazioartekoak- kongresuan izan ziren. Sindikatuen aldetik, Konfederazio Intersindikala eta steilas izan ginen.

Herri sahararrak erbestean daramatzen 40 urteetan zehar, nazioarteko komunitatearen parte handi batek, eta bereziki arazoa sortu zuen Madrilgo Gobernuak, albo batera begiratu dute, basamortuko hareek herri sahararra abandonatu izanaren lotsa estaliko zutelakoan.

Fronte Polisarioaren 14. kongresuaren leloak, "Indarra, ausardia eta borondatea independentzia eta subiranotasuna ezartzeko", argi eta garbi utzi ditu saharar herriaren asmoak, eta kongresuan izandako eztabaidek hauek lortzeko bitartekoak izan dituzte hizpide. Kongresuko eztabaidagaietariko bat bide diplomatikoekin jarraitu edo armetara itzultzea izan da. Gazteak izan dira bigarrena bultzatu dutenak, ez baitute beste berrogei urte gehiago kanpamenduetan jarraitu nahi, Sahara librean bizi baizik. Ez du hori gehiengoak

hautatu. Guda ezagutu eta bizi izan dutenek ez dute armetara itzuli nahi eta nazioarteko babesa galtzeko arriskua saihestu nahi dute.

Azken egunetako berriek –Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak Mendebaldeko Saharan arrantzu eta nekazaritza baliabide naturalak ustiatzeko eskubidea errekonozitu izanak eta autodeterminazioaren eta MINURSOren agindua mantentzearen aldeko Europako Parlamentuaren adierazpenak– egoera iluna argi dezakete, eta, 2016aren hasieran Ban Ki-moon Nazio Batuen idazkari nagusiaren iragarritako bisitarekin batera, lagungarri izan dira hartu diren erabakiak hartzeko.

Bien bitartean, 150000 pertsonatik gora nazioarteko laguntza humanitarioari esker bizi dira Tindufen inguruan dauden kanpamentuetan, eta beste hamarnaka mila okupatutako lurraldeetan Marokok burutzen dituen giza eskubideen urraketan aurka borrokatzen.

Okupatutako Saharako ordezkariak kongresuan izan dira eta Fronte Polisarioko Zuzendaritzan ordezkariak ere izango dituzte, baina beren izenak ezkutuan mantenduko dira, errepresioa saihesteko klandestinitatean biziko baitira.

Saharar herriak inoiz baino gehiago behar du nazioarteko laguntza, bere premia materialak betetzeko eta, batez ere, gobernuak presionatzeko –bereziki egoeraren ardura nagusia duen Gobernu espainiarra–, euren eskubideak onartu eta behin betiko konponbidea bidera dezaten.

Ez dezagun utzi saharar herria ahaztua izan dadin, lan egin dezagun Fronte Polisarioren hurrengo kongresua Mendebaldeko Sahara librean egin dadin.



[www.steilas.eu](http://www.steilas.eu)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eu

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eu